



Goibek kale

Elgetako aldizkaria iraila 49ak

FERMIN IRIBAR
SAN ROKE 36-1

**Omenaldi hunkigarria
Nikolas Agirrezabali**

Maderas Gallastegi, s. a.

MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA)

Tel.: 94 6820568 eta Faxe: 94 6583061.

Errealitate birtuala

"Paperak dena aguantatzen du". Anonimoa.

Gaur egun dugun askatasun maila, hainbat arlotan, dezente handia da; eta iritzi edo ikuspuntuak kaleratzeko—normala denez—komunikabide ezberdinek ematen dizkiguten aukerak sarri aprobetxatzen ditugu.

Goibekokalek uztailan kaleratutako aleak hainbat erreferentzi zekarren Udala Gobernua osatzeko izandako negoziazioez, lehenengo orrialdeko kartetan eta ondoren "Elgetako partian".

Guztiak ere iritzi edo ikuspuntu bezala, errespetagarriak, baina horrek ez du esan nahi errealak.

Aipatutako artikulua irakurrita, badirudi, EHkoek eskatutako guztiari ezetza eman geniola, "bi bileretan ez dute beren proposamena aldatu..." "...garbi ikusten dugu haize berri hauek ez direla Elgetako Udaletxera iritsi..."

Hona hemen gure ikuspuntua:

1) Batzordeen banaketa negoziatzeko bilera irekiak eskatu zituzten eta bilera irekiak izan ziren.

2) Batzordeen autonomia eskatzen zuten, aurrekontuak errespetatu etab.; eta baietza eman zitzaizkien.

3) Turismoa ez zutela nahi adierazi zuten eta horren truke euskara nahi zutela azaldu zuten, eta baietza eman zitzaizkien.

4) Mankomunitateko juntarako ordezkia EHkoa izatea nahi zuten, eta baietza eman zitzaizkien.

5) Udalaren funtzionamendu demokratikoa eta publikoa, gure ustez, bermatua dago, batzorde informatzaile guztiak irekiak direlako eta bertan egiten diren proposamenak Plenora edo Gobernu batzordera doazelako. Plenoak irekiak, publikoak dira eta Gobernu batzordeak proposamen, denak ez esatearren, ia guztiak, onartzen dira. Gobernu batzordea beharrezkoa da, praktikotasunagatik, bestela Alkateak askoz ere konpetentzia gehiago izango litzuke; hau da: Udala demokratizatzen da, hainbat erabaki Alkateak hartu beharrean Batzorde batek hartzen dituelako.

6) Batzordeen kopuruari buruz, 5 eta 2 proportzioa, erreala da baina behin baino gehiagotan azaldu dugu garrantzitsuena batzordeen kontenidua, edukia dela. EHrentzat bi izan dira, base-riena eta bestea kultura, gazteria, jaiak eta euskara; dena batzorde batean, baina eduki askorekin, beste batzuk baino dezente gehiago. Batzordeen kopurua ez da handitu, suposatzen duen lan administrati- boagatik (aktak, deialdiak etab.) gaur egun ditugun teknikariekin ezinezkoa suertatzen baita batzorde gehiago izatea.

Zeintzuk dira idatzi honen helburuak? Azken Goibekokale irakurrita elgetar bakoitzak izan zezakeen informazioa osatzea, negoziazioa egon dela garbi lagatzea eta guk ere elkarlanaren alde apostua egin dugula erakustea.

Elgetako EA/EA koalizioa

Jakin badakigu zer ondorio ekar diezaguen telefono mugikorren antenak?

San Roke kalean, San Roke osten hain zuzen ere, telefono mugikorren antena bat ezartzeko tandihardute lanean. Zer ondorio ekar diezaguen ba ahal dakigu? Oraindik ezer gutxi. Herri aurreratua goak, zientzia mailan, Estatu Batuak ..., aspaldidanik sartu ziren telefono mugikorren lehia batetan. Gero eta konp- nia gehiago etekin onak atera nahian. Orain berriz, beren zalantzak, osasun arloan, argitu nahian hasi direnean gure- gana heldu da bonbardeaketa baten erara: Hau erosten baduzu telefono mugikor bat esku- ra dezakezu!

Alde batetik 30 metrotako antena batek ikus- men kutsadura sortzen duela ez dago zalantzarik. Bestalde- tik, bidaltzen dituen uhinak, "no ioizantes", ezin dira oso onuragarriak izan gorputza- rentzat. Batzuk, mikrouhinek baino gutxiago bidaltzen dute- la diote, beste batzuk gehiago, beste ikerketa batzuk gorputza berotzen joaten dela, zelulak ere... azken finean ondorio batzu ekar diezazketela.

Bost urteetara kendu- ko dituztela diote, orduan zientzia aurreratzen doan eine- an, sateliteen bitartez izango dela eta antena guztiak kendu- ko dituztela. Egia ote? Ez ote jendea lasaitzeko beste asko- tan bezala?

Mendietan kokatu beharrean herri barruetan kokatzen dituzte komunikazio ona izateko antena asko izan behar omen dituzte eta distan-

tzia gutxira. Ez ote da kostua merkeagotzeko bideak eginak daudela kontutan izanik eta argi-indarra luzatzeko postea- bertan dituztela?

Hauek eta beste hain- bat kezka sortzen zaizkit, zuei ez?

Mari Karmen Larrañaga Barrutia baserriko biztanlea

Berriro be danok jai giruan

Elgetako Gaztetxeak, eskerrak eman nahi dizkizue elgetarroi Udazken Jaia aurrera eramaten laguntzeagatik.

Eskerrak eman nahi dizkiegu kolaboratzaile guz- tiei: Fermini, Errasti harate- giari, Udaletxeari, tortila lehiaketan parte hartu zutenei, Gaztetxean lanean jardun zutenei, Egunkariako Urtzi Urkizu kazetariari, plazara hurbildutako guztioi, sagardoa banatu zuten tabernari guztiei (berezi Haizea tabernakoei eta Ostatu jatetxekoei).

Eskerrak berriro eta zorionak, aurten ere, bakoitza- ren arazo, ideia, adin eta gai- nontzekoak alde batera utzita plazan batu gara eta. Eskerri- kasko gure helburuetako bat aurrera ateratzen laguntze- arren.

Hurrengo urtean kupelak jartzera animatzen ditugu tabernariak, jai giroa hobetzen laguntzen du eta.

Besterik gabe, guz- tioi aurrerantzean antolatuko ditugun ekintzetan parte har- tzera gonbidatzen zaituztegu.

Elgetako gaztetxea

AENOR

ER

Empresa Registrada

ER-714/2/96

Estampaciones Elgeta

Estanpaketa orokorra,
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,
Serie handietan espezializatua.



Salbador, 32. Tel eta Faxe: 76 82 6



Zegaittik ez?

Kanpora fan eta erreztasun guztiak ez dotsuezela emongo danok dakigu, baiña hainbeste zailtasunik be...

Egixa esan oso ondo pasauu dot Edinburghon eta itzultzeko goguakin nago, baiña danak ez dira lorak izan.

Bertara heldu, lanian hasi eta dirua sartzeko kontu korrante bat zabaldu bihar nebala esan zozten eta bueno, kobratzia gura nebanez ba... banku batera fan nitzan. Nik pentsatzen neban hemen moduan izango zala: karnetan fotokopixia, diru piskat eta kitto. Bai zera! !

Hillabete eta erdi itxoin bihar izan neban "espainiarra" izatiarren. itxuria danez, ez gara oso fidagarriak eta nere bankuan gutun bat, laneko bat eta bizilagun beste bat bihar izan nittuan.

Baiña azkenian lortu neban eta emon zozten zorioneko tarjetia eta hara nere ustekabia ze bakarrik kutxazainetan erabilli neikian, ezin neban gauzak pagatzeko be erabilli, eta hemen... hemen erabilli ahal izateko banku konkretu bat topau bihar.

Eta ni orduan pentsatzen ifintzen naiz heurei emoten dotsagun tratuan gaiñian, emoten dotsegun erreztasun guztixen gaiñian... Zu bertan edo heuren hizkuntzan saiatzen zara edo kasu gutxi egitten dotsue eta guk hemen: "Excuse me. That..." eta gu laguntzen saiatzen gara nahiz eta inglesa txarrian kiñu pillo bat egin dda... Eta ni konturatu naiz nik be hemen hori eskatuko dotsetela, hau da, zer edo zer gura izan ezker, nere berba egitteko eran eskatu edo galdetu deixela.

Zegaittik ez?

Sonia S. Idigoras



EHU edo HU?

Unibertsitatera sartzeko hautapobretan edo selektibitatean itxuraz txikia baina ondorioz handia izan daitekeen aldaketa egin dute aurten.

Azken urteotan Hizkuntza aztertzen duten frogan 2 azterketa egiten ziren euskara eta gaztelania maila erakusteko, bata goi mailakoa edo zaila eta bestea oinarrizkoa edo erraza. Ikasle bakoitzak aukeratzen zuen zein hizkuntzatan egin bata eta zeinetan bestea.

Aurten, oster, Unibertsitateko Gaztelania Sailak horretarako inolako arrazoirik eman barik, gaztelaniaz goi mailako azterketa bakarrik jarriko zutela erabaki zuen, eta ondoren Euskara Sailak euskaraz oinarrizko maila besterik ez zela eskatuko adierazi zigun aldaketa ez zela hain larria gaineratuz, orain arte ikasle gehienek goi mailako azterketa gaztelaniaz egitea aukeratzen zutela eta.


Baina "gehienek" ez da "guztiek" eta, "orain arte" ez da "beti", ez "aurrerantzean". Hala ere, banaka batzuek bakarrik erabiltzen dituzten eskubideak ukatzerik badagoela uste du zenbait, besterik gabe.

Dena den, gehien harritu nauena zera da, ikasle eta irakasle gehienak isilik geratu direla, azterketan euskararen ezagutza maila jaitea aldaketa eroso delako agian, nahiz eta horrekin euskararen balioak ere behera egin. Ederra amua irakasle eta, ikasle jendearentzat!

Euskal Herriko Unibertsitateak urte batzuetako atzerapausu hau ematean huts egin duela iruditzen zait, eta oraingoan politikaren azokan merkeegi saldu duela "Euskal" hitza, Herriko Unibertsitatea soilik izateko bidea hartuz.

Duela gutxi gertatu zait Ondarroako ambulategira larrialdietan zauritu bati laguntzera joan eta medikuarengandik "háblame en castellano" takar bat entzun beharra. Beharbada, ahaztu zitzaion "perdón" hori neuk erantzutea espero zuen.

Lore Elkoro



Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak diruz lagundutako aldzikaria



Aldizkari honek Elgetako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honen argitaratzailea

GOJBEKOKALE

Argitaratzailea: Elgetako Gazte Asanblada. Gudarien Bidea 2. Elgeta 20690. **Zuzendaria:** Iban Arantzabal. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Oxel Erostarbe eta Bittor Gallastegi. **Erredaktoreak:** Igor eta Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Maite Mandaluniz eta Ainara Iribar. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Administrazioa:** Susana Jimenez eta Esti Retolatza. **Publizistak:** Jone Oianguren eta Izaro Arrazola. (Tel: 943789085). **Banaketa:** M. Elena Eztenaga, Ikastola. Tirada: 650 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati).

Copyright-a: EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538.

E-mail: goibeko@topagunea.com

Goibekokalek ez du bere gain hartzen, aldzikarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurten ere udari agurra emateko sagardo eguna aparteko giroarekin ospatu da

Arratsaldeko 17:00tarako tortila lehiaketako parte-hartzaileak plazara azal-tzen hasi ziren eta 18:00tan hasiera eman zitzaion lehiaketari Elgetako trikitilarien piezekin batera. Parte hartu zuten taldeak 24 izan ziren, nahiz eta azkenean 23 tortila aurkeztu ziren, Lizarrako tortila taldekoei tortila lurrera jausi zitzaielako. Bitartean, Eider eta Ohiana trikitilarien piezekin, plazan zeuden kupleetatik sagardoa edateko aukera izan zuten plazara gerturatu ziren guztiek. Kanpotar ugari bildu zen plazan batez ere iluntzean. 19:00ak aldera, epaileek tortilak probatu eta gero, pintxoak banatu ziren txartelak erosi zituztenen artean. Ondoren sarien txanda, lehenengoa eta umeetan ere lehenengoa Gu Gaz Gu, originalena Sorgiñak eta azkenak ere izan zuen saria, Jartabalak.

Gauean, Gazte-xean erromeria polita izan zen Eider eta Ohiana taldeko trikitilariekin berandura arte. Ondoren Ostatu jate-xean bi pertsonandako afariaren zozketa egin zen eta irabazlea Juanito Sesia izan zen, 0632 zenbakiarekin.

Oh.: Zerrenda osatzeko epaimahiaren puntuaketa zorrotz jarraitu da. Puntu berdiñak dituzten taldeen kasuan dastame-nari, puntuari eta itxurari eman zaio garrantzia, hurrenkera horretan. Izartxo batekin dauden taldeak parekatuta daude puntutetan.



1- Gu Gaz Gu	26
2- Kuadrillakuak	24
3- Intxorta Elkartia	23
4- Kontxi Arrandegia	23
5- IMI	23
6- J.A.Oianguren/Ibon Elizondo	22
7- *Gabeko txoriak	21
8- *Elgetako EH	21
9- Elgetako EAJ	21
10- Gaurko da!	21
11- *La Amenaza Tortilla	20
12- *Dantza taldia	20
13- Xoxoak	20
14- Estanpaciones Elgeta	18
15- 90.210	18
16- Txapela	18
17- Elgetako tortilleruak	17
18- Elgetako trikitilariak	16
19- Armando Salvador	16
20- Gaztetxia	15
21- Gure Borda	15
22- Sorgiñak	14
23- Jartabalak	14



30 metroko antena jartzeko lanak geratuta

Udaletxeak hilaren 21ean geratu zituen lanak baimenik gabe hasi zirelako


Udaletxeari Osakidetza eta Fomentokoek, antena hauek osasunarentzat kaltegarriak ez direla esan diote, beraz, obra baimena emango diote. Ikerketa Geobiologikoen Elkarteak ordea, antena hauek gertu bizi diren pertsonen osasunerako kaltegarriak direla diote.

Irailak 21ean San Roke osteko zelaian antena jartzeko lanetan ziharduten eskabadora eta guzti. Inguruko bizilagunen kezak eta Udaletxearen baimena ez zutela kontutan hartuta Udaletxeak lanak gelditzeko agindua eman zien. Urbanismoko batzordera Retevision taldekoek antenaren proiektua eraman zuten, leku horretan antena jartzeko oztoporik badagoen jaki-

teko. Komisioak oztoporik ez dagoela erantzun zuen, herriko arau subsidiarioek ez dute eta hau debekatzen. Hala ere, obra baimenik gabe, eskabadora zelaian sartu zuten, horregatik gelditu ditu obrak Udaletxeak. Udaletxeak ez du obra baimena emateko inongo oztoporik ikusten, Osakidetza eta Fomentoko arduradunek egon ostean, antenak osasun kalterik ez duela sortzen pentsatzen baitute.

Ikerketa Geobiologikoen Elkarteak ordea antena hauek osasunarentzat guztiz kaltegarriak direla uste dute. Beraiek diotenez, gure ingurune guztia irrati seinalez beteta dago. Seinale hauen eraginez, momen-

tu guztietan frekuentzia altuko radiazio elektromagnetikoen eraginean gaudete. Elkarte honen gomendapena zentimetro karratuko nanowatio bat egotea da, antena hauek ordea 50-60 nanowatio dituzte zmkarratu-



Dagoeneko hasita daude lanak. Antena sartzeko zuloa eginda dago behinik behin.

ko. Beraien esanetan antena hauetatik gertu bizi diren pertsonen osasun arazo larriak jasaten dituzt: presioa arterialean, lo trastornoak, inso-minioa, agin protesietan erredurak, faringe, aho eta sudurra sikatzeta...esaterako

Elgetan antena txiki bat jarrita dago lehena, ur depositu zaharrea. Artea hau Airtel enpresarena da. Estatu mailan hiru konpainiak daukate antena hauek jartzeko baimena, Retevisi-
onek (bere klientea Euskaltel da), Airtelek eta Telefonikak. Telefonikak inguruan dituen antenekin Elgetako uhinak har-

tzen ditu beraz teorian ez du antenarik jarriko. Denentzako antena bat jartzeko oztopoak egoten dira, konpainia bakoitzaren antenen kokapenaren arabera jarri behar baitira gainontzeko antenak. Retevisi-
onek, Euskaltelendako jarriko duen antenak 30 metroko garaiera hartuko du eta 30 metroko azalera okupatuko du San Roke osteko zelaian. Udaletxeak lur hauek rural moduan izendatuta dauzka, hala ere egunen batean hor parkeren bat egiteko posibilidada dagoenez antena bertatik kentzea exigituko duen baimena izenpetuaraziko dio enpresari.



Lehendik ere badugu antena bat herrian, ur depositorearen gainean, hain zuzen.

Pagatzako industrialdea lehenengo errekaraino

“Elgeta XXI” arduratuko da proiektua aurrera eramateaz

Udaletxearen asmoa, Udaletxeak berak sortu duen Elgeta XXI Elkartea, Pagatzako industrialdearen 2. zatiaren programaketa guztiaz arduratzea da.

Elgeta XXI Elkartea Udaletxeak sortu du, pribatua den arren bertako kapitala guztiz publikoa da, Udaletxeak bost milioiko inbertsioa egin duelarik bertan. Elkartea erregistratuta dago, bere asmoa Pagatzako industrialdea lehenengo errekararte luzatzea da. Hemen 80.000 metro karratu daude, hauetatik 35.000metro karratu inguru industriarako izango ziren eta besteak zona

berde, bide, eta abarretarako. Udaletxeak norma sunbsidarioen aldaketa puntuala egin du eta beste lanak, planoak eskatzea, planeazio proiektua... Elgeta XXI enpresaren eskuetan geratuko dira.

Urte betean dena legalizatuta egoteko asmoa dago, hau da planeamentua guztiz amaituta egotea. Horrela lanak martxan jarriko dira. Udaletxearekin harremanetan daude Jadanik industrialde berrian kokatzeko interesatuta egon daitezkeen zenbait enpresa.

Laster hasiko dira Karabixetako gurutzeko lanak

Istripuak gertatzeko arriskuagatik bidegurutzeko konponduko dute

Eusko Jaurlaritzak 5 milioi inguru erabiliko ditu karabixetako bidegurutzeko konpontzeko lanetan. Egoetxeaga auzunetik bide nagusira irtezerakoan istripuak egoteko arriskua nabaria da. Hau konpontzeko, gurutzeko dagoen txabola atzeratuko dute, Egoetxeagatik Elgetara bidean abiadura galtzeko karril txikia jarritz. Momentu honetan Eibarrrera joateko bidea hartzerakoan daude batez ere arriskuak. Hau konpontzeko abiadura galtzeko karrila jarriko dute, baina kasu honetan bidearen erdialdean.

Zenbait ikastaroren hasiera

Urtero bezala, aurten ere Udaletxeko kultur sailak jarri ditu martxan ikastaroak. Iaz bezala, aurten ere esku lanen ikastaroa eta zeramika ikastaroan parte hartu nahi dutenek aukera izango dute. Izen emateko liburutegira joan beharko da ahalik eta bizkorren azken egunak dira eta.

Euskara ikastaroa

Udaletxeak azken urteetan bezala euskara ikasteko aukera jarri du. Ikastaroan izen emateko azken eguna urriak 4ean da. Ikastaroa urriak 18an hasiko da. Taldeak osatzeko ikasleen kopurua osatu beharra dago, horregatik interesatuak izen ematera Udaletxera joan beharko dira lehenbailehen.

Euskal dantzak

Euskal dantzetan parte hartzeko asmoa daukaten haurrak urriak 15a baino lehen izena eman beharko dute liburutegian.

Gimnasioan jo ta su

Hasi dira mantentze eta jubilatuen gimnasia saioak. Jubilatuen astelehen eta eguaztenetan 6etatik aurrera jarduten dute.

Mantentzean dabizenak, aldiz, egun berdinetan 19:15etatik aurrera.

Aerobick-a ere martxan dago. Bi talde daude astelehen eta eguaztenetan 20:45etan eta martitzen eta eguaztenetan 20:00etan. Jendea apuntatuz gero goizez ere jarriko litzaiteke aerobick-a. Informazio gehiagorako eskuratzeko botikara joan.

Elgeta autoak

Zure autoaren mantenua konponketak

EUROTALLER

Ez izan dudarik, bisita gaitzazu eta gure prezioekin txundituta geratuko zara. Berraondokuan gaude, Elgetan bertan.

Tel.: 943 76.82.02 eta 943 76.82.98




Oporren bueltan be kamisetak errepertitzen jarraitzen dau Goibekokalek. Oinguan Inmakulada Igartzak eruango dittu kamisetok. Ederki asko asmau zeban tortillak egitten ziharduela erretratukuek.

Oiñguan be zertan diharduen asmatzeko eskatuko dotsuegu. Aurrekuan tortilla egiñan ebizela esanda nahikua zan eta oinguan zertan? Asmatzailliantzako beste pare bat kamiseta emongo dittugu.

Pistak emoten be zaletuak gara eta honek lerruok amaieraraiño irakurtzen dabenak merezi dau zer edo zer. Joku bat dala esatiakin asmauko dozue, ezta?

Badakixue nora bialdu kartak. Goibekokale aldizkarira, Salvador kalia 2 Kultur Etxia.
Animo!!!!!! Ia zortedunak zarien!



Sekula baino jai jendetsuagoak eta animatuagoak Angiozarren

Edizio bikaina izan dute aurten Angiozarko jaiak, bai egitarau eta baita jendearean aldetik bikain osatuak eta antolaketa modelikaorekin egon dira tajutuak. Jai Batzordea osatu duten guztiei eskertzekoa izan da 1999ko San Migelak eduki duten disdira, jendea pozik ikusten baitzen antolatutako ekintza guztietan parte hartzen eta, behingoz, ez da hainbeste inporta izan euria egin duen edo ez.

Irailaren 18an hasi ziren jaiak Euskal Herriko Goiti-

behera Ligako azken aurreko ekitaldiarekin. Jende ugari parte hartu zuten hamahiru goitibeherak ikusteko, batez ere kurba eta bihurtunetan. Hiru minuturen inguruan ibili ziren denak ere, baina bi jeitsieretan bizkorrenak irabazi behar zuen eta Aramaixoko Larrañaga anaiak izan ziren horretan bizkorrenak 2,56 minutu eginez.

Jaien hurrengo ekitaldia barikuan izan zen. Briska Txapelaketa Maria Luisa Zuburruti eta Klarita Laspiur izan ziren garaile,

hirugarren urtez jarraian. Gabaz Rock jaialdi bikaina eskeini zuten Bergarako eta Arrasateko rockeroek. Euria egin zuen arren fansak etziren asko mugitu eta miresmen osoz jarraitu zieten taldeen soinu, erritmo eta orroei. Bitartean oheratutako gutxik egin zuten lo, burrundararekin ez zen erraza eta lo egitea. Bolintxoko Arantzabal anaiak izan genituen zapatuko Mus Txapelketako irabazleak. Aurten entrenamendu gogorra eginda zeuden nonbait bolintxotarrak, barikuan amak eta

zapatuan bi semek txapela eta Araba autobusen kopak lortzeko.

Gabean elizpean egin zen afarira ia 160 lagun inguratu zen sardina eta saiheskiz osatutako menua jateko asmoz. Ez zen askorik sobratu eta kopatxo eta guzti, mila pezeta ordainduta, bapo gelditu ziren mahaikideak jaiki eta Muxu Truk taldearekin plazan dantzan egin eta zezenen aurrean balentriaren bat edo besteren bat egiteko.

Alkate aldaketa

Aurreko egunak jendez ugariak izan baziren domekak denak gainditu zituen. Meza Nagusiarekin hasi zen eguna eta ondoren, elizatean egin zen Alkate aldaketa ekitaldi solemnearekin. "Gure Arbasoen Goraitatzia" irakurri zen lehenik eta ondoren Angiozar Bailarako Batzarraren akta irakurri, ekainean egin ziren emaitzen ondorioz sortutako batzarkide berrien izenak aldarrikatuz eta alkatearen hautaketaren berri emanez. Gorkak Milari agintearen eta ordezkartzaren makila eman zion eta datozen lau urtetarako laguntza eskeini eta herritarrei eskatu. Herriak dituen



Gorkak Milari eman zioan agintaren eta ordezkartzaren makila

behar larrienak ere gogoratu zituen, denon lana beharrezkoa izango dela gogoratu. Victoriano Gallastegi Bergarako alkateak hartu zuen berria ondoren, bere aldetik ahal dena egingo duela esanez. Milak denok frontoiruntz joateko gonbidatuz amaitu zen ekitaldia.



Angiozarko frontoiaren inagurazioa

Arbiaska frontoia inauguratzea izan zen goizeko hurrengo zeregina egun gogoragarri honetan. Abadearen bedinkazio eta agintarien zinta ebatearekin gelditu zen inauguratua frontoia, ondoren lehengo partidua jokatu. Profesional izandakoen partidua izan zen lehenik, eta hasieratik nabarmendu ziren frontoia dituen akatsen batzuk, pelotak zenbait lekutan jotzen zuenean lurrak hots bereziak ateratzen baitzituen, boteak ere makal irtenez. Dena den, partidua bizi-bizia jokatu zuten nagusiek, izan denak badaukala erakutsiz. Ansola-Salbidea bikotea izan zen irabazle 22-16 Gallastegi-Gorostizaren aurrean. Ondoren, Galartza-Sukia eta Auxkin-Berraondo bikoteek jokatu zuten. Partidu indartsuagoa, baina ez hain ikusgarriagoa, Auxkin eta Berraondok irabazi zuten 22-14.

Artisau erakusketa

Domekan egin zen artisau erakusketa ere arrakastatsua izan zen, plazari inoiz ez bezalako bizia emanaz. Hamar lanbide desberdin ikusi ahal izan ziren, tartean herritar diren Marijo Inza eta Maria Eugenia Inzaren lanak ere mirestu zirelarik. Datorren urtean egiteko zerbait da.



Artisau erakusketan hamar lanbide izan ziren ikusgai

San Migelen zeruratzea

Bestalde, San Migel egunean, jubilatuta eta gazte-txoen eguna ospatu zen. Jaiei, urtero bezala, San Migelen zeruratzeak eman zien amaiera. Iaz Frantziako St Ceré herrian azaldu zen, Angiozartik 400 kmra, ea aurten norainoko bidea egiten digun gure zaindariak.

Nikolas Agirrezabali omenaldia

Arratsaldean Euskal Herriko herri kirolari bikainenek Nikolas Agirrezabal zenari eskeini zioten omenaldia paregabea izan zen. Bertsolariak, harrijasotzaileak, aizkolariak, datzariak, trontzalariak, trikitalariak... denak puntakoak eta denak Nikolasen lagunak izanak, berarekin hara eta hona ibilitakoak. Bere familiari opariak eman zitzaizkion amaieran eta une hunkigarriak bizi izan ziren. Jendeak frontoia zeharo bete zuen, bostehun lagunetik gora bilduz. Iruditan duzue han ikusi ahal izan genuena.



ZABALA

Lasao 6 Elgeta
Tel: 768075-6 768225
Faxa: 768201





HERMANOS S.A.

EHIZARAKO
ESKOPETA EGILEA

Kirola eta euskara eskutik

Kirola Euskaraz programak euskararen normalizazioa bultzatu nahian hainbat ekimen burutuko ditu aurten ere

Deba aroko Kirola Euskaraz programak entrenatzaile, monitorea, gestore~ eta abarrentzako ikastaroak antolatu ditu. Hori dela eta, bailarako hiru kirolarirekin egon gara euskararen gaia eurrak nola bizi izan duten eta nola ikusten duten jakiteko asmoz.



AITOR ELKORO

Pilotaria

1. Guk, eskola barruko kirol ekintzetan erdaraz egiten genuen. Eskolaz kanpo, berriz, Oskarbi kultur eta kirol taldean ibiltzen ginen Elgetan-eta beti euskaraz egiten genuen bertan bai gure artean eta baita monitoreekin ere.

2. Orain profesionaletan denetik dago. Gehienbat pilotarien artean euskaraz egiten dugu baina Gipuzkoakoekin bakarrik. Botillero Aranzeta daukat eta berarekin euskaraz egiten dut baina preparatzailearekin erdaraz. Gaurko egoeran ez dut nik aldaketa handirik somatzen.

1. Mutikotan, eskola garaian, kirola egiten zenuenean, nola egiten zen. Euskaraz egiten al zen?

2. Zure oraingo kirol jardueran zein da egoera eta azken urteetan aldaketarik somatu al duzu?

3. Nondik nora ikusten duzu hobekuntzarako bidea eta nola balortzen dituzu Kirola Euskarazek antolatutako ikastaroak?

3. Ba, niretzat formazioaren bidea inportantea da. Gure garaian gauzak bakoitzak bere kontura ikasten zituen eta alde horretatik Kirola Euskaraz-en ikastaroak interesgarriak iruditzen zaizkit. gauzak hobeto ikasteko.

Aitor Elkoro:

"Formazioaren bidea inportantea da. Gure garaian gauzak bakoitzak bere kontura ikasten zituen"

ELKORO TORLOJU LANTEGIA

DEKOLETAIA ETA
FIJAZIO SISTEMAK

Berraondokua z/g 20690 Elgeta
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 768200 - 768125 Faxa: 768203

Tel: 76 81 31
M^a Jesus
Arrazola

VIVO
Janari
denda

E
HARATEGIA
AST

San Roke 6
tel: 768168

FELIX IÑURRATEGI Mendizalea

1. Gure inguruan orokorrean giro euskalduna zegoen. Herri txikiko giroa izan dut eta kasu hauetan euskara gehiago erabiltzen da. Batzuetan entrenatzaile batzuk erdaldunak izaten ziren eta baita taldekide batzuk ere, baina orokorrean giroa euskalduna zen.

2. Garbi dago mendiko giroa ez dela txarrena, baina oraindik asko hobetu daiteke. Oraindik erderra nagusi da, baina euskara ere nahiko erabiltzen da. Askotan espedizioko kideen arabera hitz egiten da. Komunikabideetan ere gehiena erdaraz baina zenbait jende badabil eus-

karaz ere lan bikaina egiten.

3. Nik hobekuntzarako bidea sentsibilizazioaren aldetik ikusten dut, hori da landu beharrekoa. Zuen egitasmoak bide hori jarraitu behar duela

Felix Iñurrategi:

"Herri txikiko giroa izan dut eta kasu hauetan euskara gehiago erabiltzen da"

uste dut eta ikastaroek hor jokia eman dezatekelela iruditzen zait.

JULEN MASACH Errealeko prestatzaile fisikoa

1. Ni euskaldunberria naiz eta ikasketa guztiak erdaraz egin nituen.

2. Profesionaltara heldu nintzenean somatu nuen euskara hor zegoela eta hitz egiten zela. Errealean harreman dezente izaten dira euskaraz; adibidez, Sanseko jokalariek askorekin euskaraz hitz egiten da.

3. Hobekuntzarako bide batzuk ikusten ditut nik:

kirol aldizkari espezifiko bat argitaratzea, kurtso espezifikoak egin... Alde horretatik, Kirola Euskaraz programak daukan egitasmoa ona dela iruditzen zait.

Julen Masach:

"Profesionaltara heldu nintzenean somatu nuen euskara hor zegoela eta hitz egiten zela"

Kirola euskaraz programa *Irabazleak behar ditugu!*

EUSKARAZ DENOK IRABAZTEN DUGU



Deba arroko Udaletako Euskara eta Kirol zerbitzuak

Basoan 3 egun

Gaur astelehena da. Autobusaren zain nago nire etxe aurreko geltokian. Xabi naiz, "Txispas" moduan ezagunagoa, gauzak oso azkar egiten ditudalako, hau da, ez dudalako pazientziarik.

Nahia eta Maitena datoz, bikiak, oso ausartak, hori esan beharreko gauza da. Jontxu atzean dator txokolate eta merengezko boilo batekin. Jontxu gelako lodiena da eta nire lagunik onena.

Ikastolara heldu gara eta jarri orduko andereinoak berri pozgarri bat eman digu:

-Datorren astean hiru egunetarako basora joango gara landareak aztertzeraz.

-E!!!

-lup!!!!

-Zu onena!!!

Denok zarataka geunden pozaren pozez.

Egunak joan egunak etorri, gauzak preparatzen hasi ginen. Amak bezperan gauzak preparatu zizkidan.

Heldu da eguna eta esan beharrik ez badago ere denok oso pozik gaude, Nahia eta Maitena badatoz nigana bi motxila handirekin. Jontxu ere beraiekin dator

boilo eta guzti. Autobusera igo gara. A ze poza!

Bi ordu beranduago basoan gara gure herritik urrun. landare eta animalia asko daude eta orein bat ikusi dugu eta Nahia, Maitena, Jontxu eta ni bere atzetik joan gara.

Konturatu gabe galdu egin gara. A ze komerial lagunak topatzen hasi eta ezin aurkitu. Iluntzen hasi da eta izugarritzko goseak gaude, eskerrak Jontxuk sei bat boilo poltsikoan dituen eta bakoitzari bat eman digun. Ez dakit andereinoak aurkituko gaituzten ez eta enteratu diren.

Besteei aurkitzeraz abiatu gara, baina ez ditugu aurkitu, beraz, gu bakarrik gelditzea erabaki dugu eta abentura pixkat edukitzea. Lehenengo sua egin eta beldurrezko istorioak kontatzen hasi gara eta gero lotara joan gara. Oraintxe esnatzea egin dugu. A Ze gaua!!! Gaur beste egun bat da eta gaur topera aprobetxatu beharko dugu eta bi aldiz pentsatu gabe eskutaketetan ibiltzea pentsatu dugu eta horrela egingo dugu. Hainbeste jolastu ondoren goseak gaude eta ez dugu janaririk, beraz, harriarekin, homosapien-

sak bezala, aizkora bat egin eta ehizara joan gara eta basurde bat ehizatu, sua egin eta jateko prestat. Arratsaldean, basotik buelta bat ematera joan gara eta erreka bat ikusi dugu arratsalde guztia bertan pasatzeko aukera ederra. Illundu duenean ohera joan gara, txintxo-txintxo, izugarritzko logureak baigeunden.

Gaur azkenengo eguna da, beraz, besteak bilatzera joatea pentsatu dugu goizean goizetik. Halako batean, oreina ikusi dugu (galduarazi ziguna) eta haren atzetik joan gara kanpinerra eramango zigulakoan eta halaxe izan da, bertan zeuden denak.

Andereinoak izugarritzko bronka bota digu, izugarritzko sustoa eman diogulako... pisaketean halekin egon ondoren autobusera joan gara. Ez pentsa! gustora itzuli naiz etxera, basoak lur jota utzi nau.

Maialen, Iratxe, Estibaliz eta Araitz

Berezitasuna:
Buztana.
Pintxo gozoak
otartekoak.

BOLATOKI
TABERNA-JATETXEA

tel: 768284



Jesús Mari Montiel
**ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK**
Artekale 3.
Mo: 970773950 Eibar Tel: 700719

**KONPONKETAK SUKALDE
ETA BAINUGELETAN**

ESKOLA PORROTA I

Ikasturtea hasi orduko sortzen dira buruaustek bai gurasoengan, bai ikasleengan eta baita maisu-maistreengan ere. Oraingoan, eskola porrotaren inguruko zarraparrak astinduko ditugu aditu baten eskutik. Esateko asko dagoenez, bi ataletan aurkeztuko dugu elkarrizketa, batetik ikasteak sortzen dituen egoerak eta gainditzeko modua gurasoen ikuspegitik, eta bestetik, zer egin gure seme-alabek emaitza txarrak badituzte.

Hasteko, izenburua kritikatu beharra dago, berez eskola porrotak ez duela esistitzen eta bai ordea, honen lekuan, egin daitekeen edo egiten ez den jokaera bat bezela ikustea.


Haurrak jaiotzen direnetik dira kuriosoak. Gauzak bereganatzeko eta ezagutzeko gogo izugarria izaten dute, jarrera honek eramaten gaitu ikastera. Eta hau jakinda, nola galtzen da jakinmina?

Haurrak mihaketan, begira, ikutzen... dabiltzanean "hor ez ibili, kontuz ez ikutu, min egiten du, zikinduko zara..." horrelako erasoekin hautsi

daiteke jakinmina; era honetara frustratzen da haurraren jakiteko gogoia. Honen aurrean beti kontutan hartzeko da haurrak "gutxiago diren sentimendua" rekin jaiotzen direla eta honen aurrean laguntza eman behar zaiela.

Fenomeno honetan arlo afektiboak zer esan haundia dauka. Haur batek bere jardunean diharduenean, bere ama edo aita parean izateak segurtasuna ematen dio, honek aurrera segitzeko jarrera bat suposatzen du. Aurrera begira jakiteko oinarria jakinmina errespetatzean eta bere inguruan segurtasuna aurkitzean egongo da.

Beste arlo esanguratsu bat gurasoen jarrera da. Haurrek ereduaren arabera ikasten dute, oso barnerraino sartzen zaizkie. Beraz, etxean, kalean, hel-



duek ez badute jakiteko jarrerarik (liburuak irakurri, idatzi...) erakusten haurrek ez dute jokaera eredugarrikerik izango imitatzeke, barnerratzeko.

Sakonki landu beharreko gaia autoestima da. Haurrek emaitza txarrak lortuz gero, egoera honen aurrean hasi daiteke haurra bere buruari etiketak jartzen "ez dut balio, nik ezin dut..." Horrela bere autoestima zapuztu dezake, haurrak

sinistu egiten du eta horrela jokatzeko hasten da. Elur bolaren fenomeno gertatzen da: behin ez duela balio sinistuz gero, gero eta gutxiago saiatzeko da. Generazioz generazio ere transmititu izan dira etiketak.


Iñaki Olaskoaga
Psikologoa
(7 urte ikastetxe batean
haurrekin lanean)

Haurrek ereduaren arabera ikasten dute: etxean, kalean, helduek ez badute jakiteko jarrerarik (liburuak irakurri, idatzi...) erakusten, haurrek ez dute jokaera eredugarrikerik izango imitatzeke, barnerratzeko.

Iragarri zaitez.

Tel: 78.90.85

Faxa: 789043



Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
Tel: 768050-789031 Faxa: 768243

TAPEM, S.A.

**Trokela eta estanzak
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK**

Oskar Askasibar: "Denboraldi hasieran talde atzerritar baten eskaintza izan nuen"

Oskar Askasibarrek zortzi urtean jarduan du txirrindularitzan, bi jubeniletan eta sei afizionatuetan. Azkenean, konpetizioa betirako uztea erabaki du, bizikletan ibiltzen jarraituko duen arren.

-Zer moduz aurtengo denboraldia?

Ez da batere ondo joan. Gihar arazoak izan ditut denboraldi guztian zehar, eta sarritan ondo aurkitu arren, ezin izan dut nuen guztia eman. Horretaz gain, ospitalea bi aldiz zapaldu dut bi erorikorekin. Honekin guztiarekin ezinezkoa izan zait forma ona hartzea.

-Bizikleta utzi behar duzula esan dezakegu?

Bueno, bizikleta ez dut utziko, konpetizioa utziko dut. Oraindik bizikletan ibiltzen jarraituko dut, izan ere ez da batere ona bizikleta bat bnatean uztea. Zure gorputza esfortzu batera ohitua dago eta neurri batean mantendu behar duzu.

-Zaila izan al da erabakia hartzea? Eta orain zer?

Bai, ez da batere erraza izan. Hala ere, ikusitakoak ikusita, erabaki zuzena hartu dudala uste dut. Orain lanean dihardut Bergarako enpresa batean.

-Zeintzuk izan dira zure taldeak?

Hasi, Bergarako Caldereria San Pedron hasi nintzen jubeniletan. Jubeniletako bigarren urtea Bizkaian egin nuen Ciclos Iturriagan. BAQUEN bi urtez egon nintzen, gero arrasateko A.T.E. (BORN JAY)-ra joan nintzen ber-



Oskar Lemoizko lasterketa irabazi eta gero podiumean.

tan lau urte egin ditudalarik.

-Zein da zure palmaresa modu laburrean?

Bi lasterketa irabazi ditut. Lehenengoa, Balmasedan irabazi nuen Baque taldearekin eta bigarrena iazko udan irabazi nuen Lemoizen. Bigarren postuak ere egin ditut, Bergaran bi aldiz, Aretxabaletan, Gazteizen... Gero bost lehenengotan ere baditut postu dexente.

-Iaz, talde profesional bat edo beste zure atzetik zebilenaren zurrumu-

rruaz zer esan dezakezu? Zerbait egon zela esan dezaket. Denboraldi polita egin ondoren, elkarrizketaren bat izan nuen, baina azkenean ez zen ezer gauzatu.

-Aurten zuzendu ahal zaizu talderen bat?

Behin denboraldia hasita, talde atzerritar baten eskaintza jaso nuen. Zalantzak nituen eskaintza onartu edo ez, izan ere ez nenbilen iztarretik ondo. Azkenean erdipurdi joateko, etxean gertzea erabaki nuen. Bitartean zenbait sendagilere-



Hainbat malda igo behar izan ditu Oskarrek, kirol hau gogorra da eta.

GRUPO
IFA

Produkturik onenak,
prezio onenean

Tel:
76 80 98.

ALDI

ANA LIBURUDENDA

Zatoz beste
dimentsio batetara!

Tel 768078

kin ibili nintzen gihar arazoa konpontzen. Ez dakit ondo edo gaizki egin nuen, baina orain ez dago bueltarik.

-Zer eman dizu txirringularitzak? eta zer kendu?

Eman kendu baino askoz gehiago eman dit. Txirringularitza medio, lagun asko egin, Euskal Herriko ia herri gehienak ezagutu, eta Segovia, Cartagena, Zamora, Granada bezalako lekuak ezagutzeko aukera eman dit. Kendu didana juergak egin eta beste kirol batzuk egiteko aukera. Espero dut orain denbora gehiago izatea.

-Dirua irabazi edo galdu egin duzu?

Ni ez naiz ibili diruarengatik. Irabazi, ziur ez dudala dirurik irabazi. Nik esango nuke dirua galdu egin dudala, baina hori bai, betidanik gustatu zaidana eginez. Argi dagoena da lanean aritu izan banintz, urte hauetan orain baino diru gehiago izango nukeela

-Berrito jaioko bazina kirol berdinean arituko zinake?

Bai ez nuke zalantzarik izango. Ni bizikletak asko bete nau sakrifizio asko eskatu arren. Asko disfrutatu dut bizikletan ibiliz. Egia da momentu txarrak ere pasatzen direla gauza bat edo beste bategatik,, baina azkenean, nik uste, konpentsatzen duela.



Askasibarrek ez du kolpetik bizikleta utziko, ez omen da ona

Oskar Askasibar BORN JAY

- Zein izan da ikusi duzun azken pelikula? Carlos Sauraren "Celos".
- Eta irakurri duzun azken liburua? Ingeleseko liburu bat irakurri berri dut.
- Kolore bat? Urdina.
- "Jersey Oro" edo "Maillot Amarillo"? "Jersey Oro".
- Sagardoa, kalimotxoa edo Zerbeza? Sagardoa.
- Afizionatuetan txirringulari jatorretako bat aipatu. Zumaiako Igor Beristain (Saunier).
- Atzerrira joatekotan nora joango zinateke? Australiara.
- Jatekorik gustokoena? Makarroiak.
- Nor harrapatuko zenuke bizikletaz? Inor ez, bestela nik hartuko nukeelako min.
- Irrati saio bat? Herri Irratiko "La movida deportiva".
- Telebista saio bat? "El informal".

EROSLE

M. Asun Agirre

Salbador 26. Tel: 768190

Iragarri zaituzte.

Tel: 78.90.85

Faxa: 789043

HAIZEA

TABERNA

giro atsegina
lagunartean
egoteko.

Tel: 768256

IBAIBARRIAGA

GARRAIOAK

Tel: 768072

Salbador zeharbidea 2

ELGETA

7
L
E
A
P
A
7
N
D
E
G
7
A

M^a
ESTHER

Tel: 76 81 67

Zelakua urten bihar da zuen tortillia?



Kuadrillakuaak

Gure tortilliak dakan itxuriakin irabazteko esperantza guztia dakagu. Gaiñera, lehenengo urtia danez parte hartzen dogula, esperantzia falta jaku, baiña... Pare bat urteko bentajia laga biharko lozkuakie.

Nere esperantzia parte hartzia zan, baiña ikusten dotenez lehenengo urteku baiño tortilla hobia urten bihar jata. Ez badau irabazten be, lehenenguen tartian egongo da. Nik ez dot iñungo sekretoik erabiltzen, sekretuak betikuak dira.

Jose Antonio eta Jbon



Elgetako Tortillariak

Emoten danez nahikua ondo doia tortillia, baiña ikusi egin biharko da. Ez da lehenengo aldixa parte hartzen dogula, lehenengo urtian 17. enian geditxu giñan, ez giñan haiñ ondo ibilli. Oingo urtian seguru hobeto urtetzen jakula, ez da hain zailla.



Elgetako Tortillariak

Guria oso ona urten bihar da. Fan zan urtian 10. geratu giñan eta oinguan seguru lehenengo amaitzen dogula. Gure tortillia hain ona urtetziak sekretu bat daka, piper pixkatekin jartzia, hor dago dana.

Aurten behintzat seguru gare fan zan urteku tapauko dogula, hoixe bai ez dala zailla azkenengo geratu giñan eta. Sekretu berezirik ez dogu erabiltzen, hori bai, patatak Kantoikokuak izatia oso inportantia da.

Kontxi Arraindegia



Oingo urtian lehenengo aldixa da parte hartzen dogula eta erdi inguruan geratu ezker, uste dot konformatzeko modukua dala.

Esatekua da laguntza pixkat be emon dozkuela, baiña sekretua, patatia zati haundixetan moztia da.

Xoxoak



Kartetan jokatzeko giro egokia

Tel: 768093

Kopa bat

Patxi Taberna

INAKI JATETXEA

Leku paregabea, eguneko menua

Tel: 943 76 82 83

Aries: Horrek uliok dominau, egunen baten uliekin batera fango zara haixe bolada batekiñ.

.....
Taurus: Lan desente bat topau biharrian zare. Hau irakurtzen dabenak lana emoteko badaka, ba... Taurus da aukera onena!!!!

.....
Geminis: Musika piskat entzun, ideak argitzeko moduko musikak topauta.

.....
Cancer: Txolinduta zare, oin bizikletan ibiltzeko gogua? Udia fan da eta neguan...

.....
Leo: Leo, leo... irakurri behintzat gutxi. Liburu bat hartzeko ordua dozu. "Kulturilla", "kulturilla"!!!!!!!

.....
Virgo: Oporrak akabau dira. Ordua da zer edo zer egitten hasteko. Kontatzeko asko euko dozu, baiña txandan-txandan eta trabatzeka.

.....
Libra: Ordenadoreko ikastaro bat egittia ez legoke gaizki. Hasi hasi 2000. urtia begira, bestela...

.....
Escorpio: Ez jateko horrenbeste ogi!!! Edo bestela, konpondu dakazun gortzakikiñ. Erremedixua ahua istia da.

.....
Sagitaris: Hartu-emon onak euki zeinke piscis-eko edozeiñekiñ. Aprobetxau, gero ez dago eta!!!

.....
Capricornius: Karta interesante baten zaiñ??? Horretarako norberak be idatzi bihar izaten dittu kartak!!

.....
Acuaris: Kriston suertia euki zeinke jokun baten. Ez izan buitria, jokatu kalderilla piskat besteik ez bada.

.....
Piscis: Ai, Piscis... Zenbat bidar jaten dozu arraiña... Okela zalia zala ez dago dudaik. Okelia jango ziñuke armosatzeko be.

Gu Gaz Gu

- **Tortilla on bat egitteko biharrezko osagaiak?** Arraultzak, patatak, olixua eta gatza.

- **Lehenengo aldixa da parte hartzen dozuena?** Ez. Lehenengo urtian zenbagarren geratu ziñaten?

Gaztietan lehenengo eta generalian bigarren.

- **Sagardoik erateko denboraik izan dozue?** Ez, ez zeuan hortarako astirik.

- **Ze esango zontzake azkenengo geratu danai?**

Hurrenguan hobia egitten saiatu biharko dala. Eta gutxienez parte hartzeko.

- **Kalian ala etxian urtetzen dabe tortilla hobiak?**

Lagunartian irtezen dia onenak.

- **Zer da onduen preparatzen dozuen platera?**

Eta sekula ez dozuen preparau bat?

Onduen erreza dan edozer, adibidez ensalada bat. Eta sekula, lentejak eta holako gauzak.

- **Sukaldari onak zatela gaur konturatu zate ala lehenautik norbaittek esan dotzue?** Aspalditxik seki-gun.

- **Zeñi eskeintzen dotzazue tortillia?** Geu, elkarri.

- **Ospatzeko juerga on bat bota ziñuen?** Batzuk pixkat Gaztetzian

ibili giñan, beste batzuk etxera.

- **2000. urteko lehiaketia irabazteko esperantzaik badakazue?** Hortaz seguru gaoz.

- **Udazken jaixai zeozer falta jakola uste dozue?** Bai, egun guztiko jaixa izateko, goizez zeozer eukitzia falta jakola.

- **Sekula parte hartu eziñuketen lehiaketan bat?** Miss Euskadi izateko lehiaketan.

- **Zer da**



sukalda-ri batek

eskuan beti eduki bihar daban gauza bat? Trapua, eskuak beti garbixak edukitzeko.

- **Kantatzen dozue tortilli egiñ bittartian?** Normalian bai.

- **Tortillia, egittia edo jatea nahi-xau?** Egittia.

- **Gustora geratu ziñeten egiñ ziñuten tortilliakin?** Danok ez.



Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak

Teilatuak	Sukaldeak
Etxaurreak	Komunak

Otzango Behekoa Baserria. Tel: 860156



Barkatuko dostazue, baiña...

autopistia bada 7 peaje pagau biharko dittugu, baiña batasunan izenian, hori be egiñ egin biharko dogu, ohittura pixkat be badaukau, ezta?



Barkatuko dostazue, baiña gaur astelehena da, eta gorputzaldi kaxakarra dakatenez, zazpiki samar nago, eta segurutik, hemen urtengo daben gehixenak zatarrak-edo izango dira.

Hasi gaitian baiña, hasieratik. Zapatu goizian elkartu giñan abertzale guztiok Bilbon. Hemendik aurrera danok elkarrekin, batuta, elkartasun osuan askatasunerako bidian jarriko dogu hau herrixau. Hori bidioi

Zapatu atsaldian sardau eguna. Elgetan be danok elkarrekin, batasun santuan tortillak jan eta sagardaua edan, eta gabian juergia eta hor be, ze pentsaua. Gabeko ezordutan gaztetxian giñan gehixenok, oiñ dala hogeï urte moduan: edan asko eta jo gutxi.

Dana dala gauza batzutan irabazi dogu, neskak be igual-igual edaten dabe, eta horretan Gipuzkoako beste puntan baiño hobeto bagagoz, baiña bestela, asuntua

kaxkar xamarra ete dan susmua etara neban.

Ez dot esaten kristo guztia danon aurrian narrutan ibilli bihar danik, baiña guri hori egittia txarra zala esaten zoskuen eta oiñ, uste dot ona dala esango dotsuela nere edadeko gurasuak, ezta? eta eskolan be holako zer edo zer ikasiko dozue, ezta?

Ba, zapatuan horren itxura gutxi zeguan gaztetxian eta hori ez dago bape ondo.

Oiñ arte entzun ez badozue, oiñ irakurri egingo dozue: narrutan egittea oso ona da, bai osasun mentalerako eta bai fisikorako; orduan, aurrian dittugun batasun eta elkartasun erronkei bihar dan moduan aurre egitteko, jo-jo egiñ asko askotan, ezer txarrik ger tau ez daixen erremedixua jarritta, eta edozertarako prest egongo gara.

**Gabeko ezordutan gaztetxian giñan gehixenok,
oiñ dala hogeï urte moduan:
edan asko eta jo gutxi.**

Jabier Arantzeta



Instalazioak eta mantentze lanak

24 orduko zerbitzua
tel. mugikorra: 619692336
tel: 789057-768025



Gudarien Bide
Tel: 76 80 23
ELGETA

Eguneko menua 800 pzta.
Karta.

Hozkailuak eta izozkailuak aire giro-tua.



Salbador 21
Berraondokua 7
Tel eta faxa: 78 90 46



Larunbatetan eta igandeetan bertako babarrunak, saiheskia erreta.





tel: 768273



**KONTXI
ARRANDEGIA**

Salbador 5 Tel: 768009



Erretratua: Maite Mandaluniz

Goikokale

Futbol zelaixan ezin geinkez honek taldiok batu ez dago halakoik eta. **Goibekokalen**, Goikokale eta Bekokaleko taldiak batzia gustauko lejakuke eta besteik ezian, hemen orri-xan batera ifintzen saiatu gara. Hala eta be, hogeta hamar lagunetik gora ifiñi biharko giñukez orri baten eta ez da posiblia izan.

22 edo 23 urte inguru izango dira hau erretratuau etara zane-tik eta seguru, hemen daren askok, hor egunian pasautakuak guk baiño hobeto jakingo dittuela. Hurrengorako, Bekokalekuak hurrengo hilleko **Goibekokalen** etarako dittugu eta, ia partiduan zer pasau zan esateko moduan garen.

Nunbaittetik hasi bihar eta Goikokalekuekin hasiko gara, gutxien diranekin:

Tente darenak: **Juan Antonio Markiegi, Julian Markiegi, Jabier Ibaibarriaga, Iñaki Etxebarria, Juan Luis Arantzeta, eta Jose Antonio Irazabal.**

Makurtuta darenak: **Alberto Ibaibarriaga, Joseba Elgoro, Jabier Leanizbarrutia, Migel Arantzeta eta Moises Arantzeta.**

ELGETA


Eraikuntzaren
2. faseari
ekingo diogu laster

- ▶ Etxebizitza zoragarriak
- ▶ Lokalak
- ▶ Garajeak

Informazioa

943 76 11 23

U.T.E. URIBURU



Kokapen ezin hobea
Ikuspegi bikainak

Construcciones Mauricio Arregui S.A.

Construcciones Sukia

ELGETAN

Lau etxebizitza
eta lokala salgai

- Gasdun berogailua
- Sukalde eta guzti
- Dena kanpo aldera begira

Informazioa: 943 20.27.10

943 70.28.80

Inmobiliaria UMBE S.L.

